

UDAKO TAILERRAK

(Ekainaren 24tik abuztuaren 30 arte)



2018- 2021 bitarte jaiotako haurrentzat

(Ekainak 24tik abuztuak 30 arte)

Galtzattipik 2018- 2021 bitarte jaiotako haurrentzat, Udarako tailerrak eskeintzen ditu. Beti ere familiei, lana eta familia bizitza uztartzeko aukera eskeiniz. Tailer hauen helburu nagusia, jarduera desberdinen bitartez, haurrek ondo pasatzea.

TARIFAK

Tarifa	Aste bat (astelehenetik ostiralera)
Ordu bat	5 euro
Egun bat	25 euro
3 ordu arte	50 euro
6 ordu arte	65 euro
8 ordu arte	75 euro

Tarifa hauek janari gabe dira. Jangela zerbitzua kontratatu nahi baduzue tarifak honako hauek dira:

Bazkaria 6 euro/eguna

Haur Eskolak tailer hauek astelehenetik ostiralera 7:30etatik 15:30ak arte eskeiniko ditu. Hau horrela izanik, gurasoek erabakiko dute haurrak egingo duen ordutegia.

Matrikulazioa apirilaren 10etik aurrera izango da lehenago Galtzattipin egon diren haurrentzat. Besteentzat apirilaren 17tik aurrera izango da. Plaza erreserbatzeko kontratatutako aste guztiak eta bazkari guztiak ordaindu beharko dira. Transferentzia Sabadelleko ES82 0081 4254 4000 0114 1519 zenbakira egingo da, izena eman duen haurraren izenean. Ordainketa egin arte, plaza ez da erreserbatuta egongo (epea 2 egunekoa izango da).

Udalekuetako bajak maiatzaren 31ra arte onartuko dira; kasu horretan, transferentziaren zenbatekoa ken %12a itzuliko da kudeaketa gastuengatik. Datak geratzen diren plaza kopuruaren arabera aldatu ahal izango dira.

Kontratutako ordutegitik 15 minutu pasaz gero, orduka fakturatuko da: 5 euro/ordua. Mugatutako plazak.